

BEHARBADA ZU ZARA HELBURUA

UNITATE DIDAKTIKOA

Eztabaida eta ekintza sortzailea taldean

Gertaera:

2011n, Phillip Morris multinazionalak munduko kanpaina hau abiatu zuen Marlboro marka sustatzeko: «**Be Marlboro**». Kanpainan erabilitako gaiak eta irudiak nerabeentzako marketinari buruzko aurretiazko ikerketa baten emaitzak dira. Gai zein irudi horietan, erretzea gazteen bizitza-estilo batekin lotzen da, arriskuarekin, esplorazioarekin eta askatasunarekin lotua dagoena mezu honen bidez: «**Don't Be a Maybe. Be Marlboro**» (**Ez izan edonor. Izan Marlboro**).

Proposamena:

Testuinguru honetan, «**Beharbada zu zara helburua**» jarduera tabako-industriaren publizitate-estrategiak erakusten saiatzen da, gazteei erabakiak era libreagoan hartu ahal izateko trebetasunak emanez.

Behar den materiala:

- Unitate didaktikoa
- Irakasleak «Beharbada zu zara helburua» gaia kontsultatzeko eta informazioa izateko materiala.
- «Ziur zu zarela helburua» ikasgelan lantzeko materiala. Hiru saiotan dago banatuta, irakasleak egokiena aukeratzeko bere irizpidearen arabera.

Gomendatutako hartzaileak:

Nagusiki, DBHko 2. mailako taldeentzat. DBHko 1. mailan lantzen bada, «KERIK GABEKO GAZTEAK» programaren lehiaketako jarduerak egin behar diren garaisuan ematea iradokitzen da.

Helburuak:

- Gazteen artean tabakoaren kontsumoa eta nikotinaren adikzioa bultzatzen duten kanpainak ahalik eta eragin txikiena izatea.
- «Don't Be a Maybe. Be Marlboro» (Ez izan «beharbada». Izan Marlboro) kanpainaren marketin-jardueren ondorioak aztertzea.
- Irakasleei baliabideak ematea «tabako-adikzioaren prebentzioarekin» lotutako curriculum-lan bat egin ahal izateko.

Jardueraren garapena:

Gaiarekin hasteko azalpen-proposamena eta aukerako hiru saio. Hezkuntzako hainbat arlo eta gunetan landu daitezke (Ingelesa, Gaztelania, tutoretza-orduak...).



Are you a **"MAYBE"** ?
Zu zara **"MAYBE"** bat ?



Lanaren hasiera: «Beharbada zu zara helburua» (azalpenak emateko 15 minutu)

- Aurrez, bezperan, adostutako arloko irakasleak (Ingelesekoa, Gaztelaniakoa, tutorea...) Interneten bilaketak egitea proposatuko die ikasleei, bilatzaile baten bidez esapide hau erabilia egitea: «Don't be maybe. Be Marlboro» (halaber, «Beharbada zu zara helburua» irakasleentzako gida informatiboko 25. orrialdean dauden *esteka interesgarriak* eman daitezke eta pen-drive batean deskarga ditzatela ikasleek hurrengo egunean gelakideei erakutsiko dizkieten irudiak).
- Irakasleak ere deskarga ditzake eskura dituen «Beharbada zu zara helburua» eta «Ziur zu zarela helburua» materialak.

1. saioa. Ikasgela osoarekin: «Ziur zu zarela helburua» materialeko 1.tik 19.era bitarteko irudien lanketa.

- a.- Irakasleak kanpainaren asmoa azalduko du aurreko egunean ikasleek emandako irudiekin eta horiek ikasgelan erakutsiko dira.
- b.- 1.tik 19.era bitarteko irudiak erakutsi ondoren, eztabaida bat sortuko da galdera hauei erantzunez (galdera horiek 5. diapositiban agertzen dira):
 - Deskribatu iragarkietan agertzen diren egoerak
 - Nolakoak dira aktore protagonistak (adina, generoa, «hiri-tribua»...)?
 - Zein da publizitate horren asmoa?
 - Definitu helburuko taldea (adina, sexua, generoa...)
 - Baloratu 0tik 10era horrelako mezuen eraginkortasuna

2. saioa. Ikasgela osoarekin: «Ziur zu zarela helburua» materialeko 20.etik 39.era bitarteko irudien lanketa.

20.etik 39.era bitarteko irudiak ikusi ondoren, eztabaida bat sortuko da galdera hauei erantzunez:

- Nola itzuliko genuke «Maybe» hitza?
- Izaera bati edo pertsona mota jakin bati buruz ari da?
- Lagunarteko hizkeran, zein hitz erabiltzen dira honelako nortasuna aipatzeko?
- Horrelako nortasuna zer da, positiboa ala negatiboa?
- «Maybe»-z bestelako zein aukera proposatzen du tabako-multinazionalak?

3. saioa. 2-3 pertsonako talde txikietan: «Ziur zu zarela helburua» materialeko 40.etik 46.era bitarteko irudien lanketa.

40.etik 46.era bitarteko irudiak erakutsi ondoren, talde txikietan egiteko lan bat proposatuko da:

- Talde bakoitzak **publizitatearen aurkako** ideia kritiko bat landu behar du, erreferentzia gisa hartuta «Ziur zu zarela helburua» esloganean jasotakoak.
- Kontua da eslogan kritiko, ironiko, irudimentsu eta zirrargarri baten bidez erantzutea, diseinu grafikoaren askatasun guztiarekin eta galdera honi buruzko mezuarekin:
 - ✓ Zu zara MAYBE-ren bat? / ¿Eres tú un/una MAYBE?

Proposamenak:

- Talde bakoitzak bere sormen-lana egin ondoren, talde bakoitzeko ordezkari batek ikasgelari azalduko dio beren proposamenaren emaitza.
- Egindako lan guztiak ikasgelako iragarki-taulan edo ikastetxeko gainerako ikasleek ikusteko moduko gune batean jarriko dira (sarrera, eta abar).
- Irakasleak prozesu osoko argazkiak aterako ditu, eta zabaldu ahal izango ditu, ikastetxeko irizpideen arabera (ikastetxeko webgunea, eta abar).

¡Deitu! KERIK GABEKO GAZTEAK
Araba Tel.: 94501717 - Bizkaia Tel.: 944031548 - GIPUZKOA Tel.: 943022773